

## LiburuTruk

Udal Liburutegia *BookCrossing* gune ofiziala da.

Beraz, hemendik aurrera ...

gune finko bat izango duzu liburutegian bertan, nahi dituzun liburuak askatzeko eta liburu askeak aurkitzeko.

Kendu hautsa liburuei Irakurri eta askatu!

Bisitatu gure apalategi birtuala:  
[www.bookcrossing.com/mybookshelf/MutriLiburutegi/all](http://www.bookcrossing.com/mybookshelf/MutriLiburutegi/all)

**Partekatu eta parte hartu**  
**[www.bookcrossing.com](http://www.bookcrossing.com)**



**Mutriko Udala**  
**Liburutegia**

Zabiel Kultur Etxea. Erdiko Kalea, 28  
Tel. 943 60 41 82  
[liburutegia@mutriku.net](mailto:liburutegia@mutriku.net)

[www.mutrikoudala.net/herrian-bizi/kultur-agenda/liburutegia](http://www.mutrikoudala.net/herrian-bizi/kultur-agenda/liburutegia)

# LiburuTruk

*Liburuak trukatzeko  
udal liburutegiko  
gune askea*

**BOOKCROSSING  
GUNE OFIZIALA**



**Mutriko Udala**  
**Liburutegia**

## Zer da **LiburuTruk**?

Liburuak trukatzeko udal liburutegiko gune askea

### Helburuak

- Etxean daukagun baina behar ez ditugun liburuak beste jendearekin trukatzea, liburuen bitartez pertsonak konektatuz.
- Berrerabilpena, birziklatze modu bat den neurrian, sustatzea.
- Irakurketa eta liburutegiaren erabilera bultzatzea.



Mutrikuko Udala

### Funtzionamendua

Edonork interesgarri eta egoera onean eta jada behar ez duen libururen bat baldin badu, ekar dezake eta horretarako prestatu dugun tokian utzi. Era berean, bertan bere intereseko zerbait ikusten badu berarentzat hartu eta etxera eramateko aukera dauka.

Gune honetako liburu guztiek izango dute itsasita **pegatina bat liburu askeak** direla adieraziz.

### Kokapena

Liburutegiko sarreran. Horretarako prestatu dugun txokoa liburuak eskura eta bistan daude nahi duen edonorentzat.

### **BookCrossing** mugimendua

**BookCrossing liburuak** elkarrekin **trukatzeko** proiektua da.

Aspaldi interneten sortutako ideia hori gaur egun sistematizatuta dago webgune batean:

<http://www.bookcrossing.com>

**Liburuak leku jakin batean** edo kalean bertan **“aske” uzten dira**, norbaitek topatuko dituelakoan. Pertsona batek liburu bat aurkitzean, liburuaren kodea erregistratu egiten du Bookcrossing webgunean. Honela liburuaren ibilbidea jarrai daiteke. Bestalde behin liburu bat irakurrita, berriro libre uzten da irakurle gehiago izateko eta... mundua ezagutzeko.

Gaur egun mundu osoko milaka irakurle biltzen dituen Liburutegi Mundial eta erakargarri honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

**Partekatu eta parte hartu**  
[www.bookcrossing.com](http://www.bookcrossing.com)